

Ongiaren eta gaizkiaren arteko harremana bitxia da, zentzugabekeriak jositakoa. Gizakiok hain onak bagara, zergatik hel gaitzke hain txarrak izatera eta hainbeste min ematera? Aspalditik dago eztabaida hori mahai gainean, sarritan usoen eta belatzen inguruko argudio antzuekin zerbitzatuta. Rousseauk zioen gizakiok izatez ez-biolentoak garela, eta, Thomas Hobbesek, aldiz, kontrakoa, naturaz garela biolentoak.

hain errukior eta kooperatibo, eta, era berean, hain basati eta krudel ulertzeko azalpen bat ematen digu, kontakizun serio bat. Bere tesiak, behin betikoa izan ez arren, harritu egiten du. Biologia ebolutiboaren mailan hipotesi berri eta bikaina ezartzen duelako, gure burua, gure iragana eta etorkizuna ikusteko modua aldatuz. Bere aurreko liburuan, jantzia prestatzen ikasi zuen hominidoa animalien auzoan nola gailendu zen kontatu zigun Richard Wrangham primatologoak. Nola suaren kon-

trolak bere janaria prestatzea ahalbidetu zion, jandako kalorien efizientzia asko hobetuz eta pentsatzeko eta planifikatzeko denbora eta energia gehiago lortuz. Azken liburuan, hiltzeak, heriotzara zigortzeak, antzinako eta muturreko biolentzia modu horrek, bertutearen eta moralitatean jabe egin gintuela defendatzen du Richard Wranghamek. Gizakion autodomestikazioa azkartu zuela, kooperazioa eta kultura metatitu zituela, zibilizazioaren erakuntza erraztuz. Beste hitz ba-

tzuetan esanda: garena izatea eragin zuela, hots, *homo sapiens*-ak. Biolento eta otzan Wranghamek bere bizitzaren zati handi bat tximino handiak aztertzen eman du. Batez ere, txinpantzeak, bonoboak eta gizakiak. Eta intrigatzen duten aurkikuntza asko egin eta zabaldu ditu, hala nola, txinpantzeen artean infantizidua ez dela batere ezohikoa, helduek –batez ere arrek– beste heldu batzuk hiltzen dituz-

{ analisia } Mikel Zubimendi

Bertutearen jaiotza basatia

Uste popular baten arabera, sortze beretik gara kalterik ga-beak, errugabeak. Eta bakean biziko gara baldin eta patriarkatuaren ideologia, jabetza pribatua eta desberdintasun soziala bezalako influentzia gaiztoetatik ihes egiteko gaitasuna badugu. Bada ideia horretan egiazkoa den zerbait, bai, baina ez da guztiz egiazkoa ere. Gure eguneroko interakzioetan espezie baketsuenetarikoa gara, baina, era berean, biolentzia suntsitzailerik planifikatzeko gure ahalmena handituz doa etengabe. Richard Wrangham primatologo eta Harvard Unibertsitateko antropologia irakasleak liburu berri zoragarria idatzi du. “Onberatasunaren paradoxa: eboluzioak nola egin gintuen aldi berean biolentoago eta baketsuago”. Bertan, gizakiok zergatik izan gaitzkeen

Alfa arren kontrako beta arren koalizioen biolentziak gure eboluzioa definitu zuen. Kalkulatua eta planifikatua den biolentzia proaktiboaren genea indartu eta gure autodomestikazioa bultzatu zuen horrek. Errukiorrago, kooperatiboago bilakatu gintuen espezie bezala eta moralaren atea ireki zigun.

tela emeak berenganatzeko, tximino handien artean soilik bi espezie, txinpantzeak eta gu, gizaki ehiztari/biltzaileok, ibiltzen garela gure lurraldeetatik kanpo eta bi espezieotako kideek soilik hitzen ditugula beste komunitateetako kide bakartiak. Txinpantzeak, gizakiak bezala, armarik gabe hiltzeko gai dira, bai. Baina plan bat egitea eta koordinatzea eskatzen duen heriotza zigorra erabiltzeko ez dira gai. Bonoboak, aitzitik, txinpantzeengandik Kongo ibaiak banatuta bizi direnak, aparteko mundu batekoak dira: ez dute patruilatzen, ez dute lapurtzen, ez dituzte auzokideak hiltzen, ez dituzte emeak kolpatzen eta bortxatzen, komunitate ezberdinen artean adiskidetsuak dira. Sexua erlaxatuagoa eta dibertigarriagoa da haientzat.

Eraso biolentoak egiteko txinpantzeak bezalako ahalmen indartsua dute gizakiek, baina baita adeitasun eta otzantasunerako bonoboek bezalako ahalmena ere. Beste tximinoekin alderatuz gero, gure egunerokoan biolentzia maila oso baxuak praktikatzen ditugu, baina, aldiz, gure gerretan heriotza tasa beldurgarriak ditugu. Horra hor, labur-labur, Wranghamen arabera onberatasunaren paradoxa non datzan: desadostasun edo itxurazko kontraesan horretan.

Erreaktibo, proaktibo

Zientzialariek espezie bereko kideen arteko eraso edo biolentzia bi mailatan sailkatzen dute: erreaktibo eta proaktibo. Gizakion kasuan, eraso fisikoa, mentala edo hitzez-

koa izan daiteke. Erasore erreaktiboak probokazio edo mehatxu bati emandako erantzuna da. Suminkorra izan ohi da, oldarkorra, testosterona maila handiekin kideak. Erasore proaktiboak, aldiz, kalkulatuak da, hotza eta estrategikoa. Normalean, biolentzia erreaktiboak norbanakoa da, indibiduala; eta eraso proaktiboak biolentzia instituzionala izan ohi da, heriotza zigorraren edo gerraren forma har dezakeena. Azken urteotan, ikertzaileak bi biolentzia mota ezberdinontzat burmuineko zein mekanismo elkartu diren identifikatzeko gai izan dira. Orain jakina da zirkuitu neurologiko ezberdinak dituztela. Eta, beraz, ondoriozta daiteke hautespen naturalak agresibitate motok modu independentean alda ditzakeela.

Gizakion komunitateetan hautapen naturalak zergatik eboluzionatu zuen eraso erreaktiboaren kontrako norabidean? Wranghamentzat erantzuna da taldean bizi ahal izateak egonkortasun minimo bat eskatzen duela. Ez dagoela aldagarriagoa, disruptiboagoa den ezer sumisioa eskatzen duen eta menderatzea, beldurtzea, ausazko biolentzia, janariaren eta emeen monopolioa bilatzen dituen eraso erreaktiboak baino. Beste hitz batzuetan esanda, alfa arraren, erasotzaile erreaktibo gorenaren, jokamoldea baino.


Giza komunitateek alfa arraren tirania hori sufritu behar izan zuten, eta izurrite horrekin elkarbizitzea edo errolik, sustraieetatik erauztea beste aukerarik ez zuten. Gizakiak elkarrekin komuni-

katzen hasi zirenean, alfa arrek ez zuten dagoeneko ezer egiterik. Beste ar helduen koalizioak bihurtu ziren beren borrokoak.

Denborarekin, alfa arrek aldezka hiltzen hasi zirenean, eraso erreaktiboaren genea giza populazioan urritzen hasi zen, exekuzio pelotoi gisa funtzionatzen zuten beta arren koalizioak egonkorragoak bilakatu ondoren. Giza komunitateek ongi etorria eman zieten arau berriei. Koalizioen boterea erabatekoa bihurtu zen, eta, maila batean, Max Weberren Estatuaren definizioa, biolentziaren monopolioa duen entitatearena, aurreratu zuen.

Giza zibilizazioa heriotza zigorraren bidez eraiki zen, edo antropologoek hitzekin esanda, «koalizioek egindako eraso proaktiboaren» bitar-

Azpian, lehengusu «hippy» dugun bonoboaren erretratua. Zoom DOSSO | AFP




tez. Garapen horrek giza moralitatearen bi kontu bereizgarrienen sorrera bultzatu izan zezakeen: ongia eta gaizkia bezalako estandar abstraktuetarako gure joera; eta, beste tximinoetan topatzen denarekin konparatuta, sozializazioarako, altruismo, kooperazio eta justiziarako gure tirantza handiagoa.

Bi biolentzia bi motok Wranghamen teoriaren oinarria osatzen dute. Baina garrantzia berbera dauka giza domestikazioaren inguruko bere tesiak ere. Eta bere sorrera alfa arraren taldekako exekuzioan finkatzen du.

Autodomestikazioa

Urte askotan zehar, giza domestikazioaren inguruko inolako teoriarik ez zen beharrezko ikusi, ezta Darwinena ere. Arrazoia sinplea zen: do-



tzeak, koalizioan proaktiboki erasotzeko gure ahalmena indartu zuen. Biolentzia forma hori basakeria askoren arduraduna da, besteak beste, gerrarena, sarraskiena, esklabotzarena, sakrifizioetan oinarritutako erri-tualena, purga politiko eta botere nagusikeriena.

Gure bultzada biolentoe-nak, are hiltzaileenak diren batzuk, gure espeziea erru-kiorragoa, kooperatiboagoa bilakatzeko prozesuaren ar-datzean daude, arduradun dira. Gure ibilbide eboluti-bo, baita gure gene eta au-rreikuspen moralak ere, al-datu zituztelako.

Gerraren arduradun na-gusia izanik, biolentzia pro-aktiborako daukagun atxi-kimendu nabarmen, gene horiek izateagatik tristatu behar al gara?

mestikazioak kanpoko pro-
tagonista batek, hazlea be-
zalako norbaitek, prozesua
zuzentzea eskatzen du. Eta
zientziak zekien arte, gana-
duak ez bezala, gizakiok ez
dugu sekula hazlerik izan.

Hautespen artifizialak, te-
orian behintzat, kanpoko
eragile baten parte hartzea
eskatzen du. Baina Wrang-
hamen arabera, hautespena
oldarkortasunaren kontra
badoa, animaliak autodo-
mestikatu egiten dira.

Otzantasun handiago ba-
tez gain –autodomestikazio-
aren lehen sintoma–, giza-
kiok “Domestikazioaren
sindromea” izenaz ezagu-
tzen den prozesuaren seina-
le asko erakusten ditugu:
hezur meheagoak, aurpegi
motzagoak, ar eta emeen ar-
teko ezberdintasun txikia-
goa, jokabidezkoak eta fisio-

logikoak diren adierazleak,
hala nola, beldurraren au-
rrean erantzuna, hormonon
produktzioa, bizitasun zele-
bre bat, eta abar.

Domestikazioak zergatik
ez du kanpoko ekintzaile ba-
ten, hazle baten beharra?
Zergatik izan daiteke disei-
natzaileak gabeko diseinu?
Galdera horiei erantzuna
ematen die Wranghamek,
datu eta detaile askoko kon-
takizun aski sakon eta onar-
garri baten eskutik.

Wranghamen ustez, do-
mestikatu gintuena tirano-
ak hiltzea izan zen, gure es-
pezieko oldarkorrenak,
gutxien kooperatzeko prest
zeudenak hiltzea, haien
kontra heriotza zigorra eza-
rri eta exekutatzeari. Izan ere,
oso oldarkor eta dominante
ziren alfa ar bakartietatik al-
fa arrak hiltzen zituzten be-

ta arren koalizioetara pasa-
tu ginenean, biolentziaren
egitura soziala aldatu egin
zen. Aldaketa horrek eman
zigun espezie bezala ezagu-
tu dugun arrakasta, edo
arrakastarako giltza. Eta epe
luzean, eraso errektiborako
joera aktibatzen zuten gure
geneen higadura ekarri
zuen. Prozesu horrek guz-
tiak bultzatu zuen autodo-
mestikazioa.

Onena eta okerrena

Modu hotz eta estrategiko
batean hiltzeak, giza biolen-
tziaren forma bakar horrek,
gure espeziarenak bakarrik,
gure-gurea den joera bati bi-
dea ireki zion. Hain zuzen,
bertute moralari.

Alfa arren erabateko bote-
retik, borraroen, beta ar tal-
deen botere mugatura pasa-

Gure lehengusu
oldarkorrek diren
txinpantzeak, Kongoko
oihan batean.
Alain JOCARD | AFP

Hara hor funtsezko fun-
tsaren funtsa eta denetan
paradoxa handiena: biolen-
tzia koordinatu eta planifi-
katuak gure bertutea mol-
datu eta hari egokitutako
ordena sozial bat eman zi-
gun. Eta ordena horrek be-
rak zapalketa eta esplota-
zioa posible egin zituen.
Estatuarena izan edo beste-
lako botere taldeena.

Ez, ez dugu barneratu be-
har gizakiaren naturak ber-
dintasunaren eta bakearen
aldeko aurrerabidea ezinez-
ko egiten duela. Ezta saihe-
tsezin egiten duela ere. Ez
bata eta ez bestea. Bat bera
ere ez. Betikoan gaude, biak
lortzea izugarri zaila da,
biak batera lortzea beldur-
garri gaitza da gu gizakion-
tzat. Espezie bezala, espe-
zien artean dagoen onena
eta txarra garelako.